

Autobus turistiko berria

Tolosa eta Segura lotuko ditu, bi herriek 750 urte betetzen dituztela eta ▶ 3



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Larunbata ▶ 2006-07-22 ▶ IV. urtea ▶ 944. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Zortzi egunez festetan murgiltzeko irrikitan

VILLABONA ▶ Etzi ekingo diete Santio jaiei, eta hilaren 31a arte luzatuko dute festa giroa

ARDATZAK ▶ Hurrei eskainitako egitaraua eta herriko elkarteek proposatutako ekitaldiak, gakoak ▶ 4

LEITZALDEA ▶

Mendukilo: Aralarren erraiak ageri

Astitzko kobazuloan, lur azpira bisita ▶ 7

'Kantu isila', Tolosako herritik barrena

TOLOSA ▶ Inauguratu dute Koldobika Jauregi alkizarrak Tolosaren 750. urtemugarako sortutako eskultura bildumen erakusketa ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

'Realeko Bira 2006' irailaren 2an iritsiko da Tolosara

Jolas eta ekitaldi bereziak izango dira gaztetxoentzat, aurretik, dohainik ▶ 5

LEITZA ▶

Santa Krutzen erromeria egingo dute asteartean

Herriko jubilatuek antolatutako egun-pasa; 13:30ean, meza, ermitan ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Gabirondo, Alkorta, Goikoetxea eta Aranalde, finalari so

Gazteluarrak eta asteasuarra bihar lehiatuko dira Euskal Herriko Segura Txapelketako finalerdietan ▶ 6

N. LATABURU



KULTURA ▶

Tolosako bihotzetik ibilaldia eskulturaz eskultura

Koldobika Jauregi alkizarrak Tolosaren 750. urteurrenaren harira antolatutako eskulturen erakusketa inauguratu dute



12 tona pisatzen du San Frantzisko ibiltokian ezarri duten eskulturak. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Eguerdiko hamabiak dira; hitzordua Tolosako Plaza Zaharrean da. Hemen hasten da ibilaldia. Guztiak ordurako ailegatu dira, politikari, kazetari, ikusle eta protagonista bera: Koldobika Jauregi eskulturgilea. Eguzki indartsu batek herria astintzen duen artean, guztiak itzalen baten bila dabilta. Kazetarion ohiko galderak erantzun ostean, unea iritsi da. Udaletxearen parean, zapi beltz batek eskultura bat estaltzen du. «Hiruok batera», diote. Hala, Tolosako alkate Jokin Bildarratzek, Koldobika Jauregik eta Kultur zinegotzi Andoni Iturzaetak estalkia kendu dute. Eta hortxe ageri da Jauregi alkizarrak Tolosako 750. urteurrena dela eta *Kantu isila* izenarekin egin duen aire libreko eskultura mostraren lehen pieza. «Hizki txinoak, San Adriango tunela eta Iturriozko baserria» hartu ditu erreferente honetan.

Metro batzuk ibili eta alboan dagoen Andre Maria plazara abiatuta, bigarren eskulturara heldu dira ibiltariak. Itzalak eta haizeak atsedenditxo bat eskaini dio bero sargoriari. «Behin eskulturak ezarrita nire lana hemen amaitzen da; orain jendeak hauek ikustean sentitzen duenak du garrantzia», azaldu du artistak.

Ibilbidea Fronton kafetegian amaitu dute. Parean herrian ikusgai izango diren 15 eskulturetan pisutsuena topatu dute. 12 tonako eskultura, «Zudialdia indarrak berreskura-

tzeko baliatuko dute, lunch batekin. Baina herritik barrena oinez jarraituz gero, eskultura gehiagorekin egingo du tupust ibiltariak. Hain zuzen ere, Zaballarreta parkean topatu ditugu Markinako marmolez eta Lasurto grizez eginiko beste lau. «Guztiekin ere Euskal Herriko folklorea, kirola eta filosofia dute erreferente». Eta, nola ez, «Tolosaren ibilbidearen erreferentzia» ere dago haien baitan. Tolosako bihotzetik zehar eginiko ibilbidea Larramendi auzoan amaituko da. Gune guztiak zeharkatuta, bada, guztiara 15 eskultura miresteko aukera dago.

«Tolosarentzat berezia»

Inaugurazioaren unean Tolosako alkateak ere hartu zuen hitza. «Erakusketak hiru alor lantzen ditu; batetik, politikoa, debatea pizten duelako; bestetik, artistikoa, Tolosan oso integratua dagoelako eta, azkenik, turistikoa, zirkuitu bat osatzen duelako».

Gai asko jorratu nahi izan ditu Jauregik. Batetik, «elizarekin zerikusia duten zenbait datu» hartu ditu. Baita «deku zehatzena» ere, besteak beste, «Aiako Iturriozko baserriarena». Denak ere hemengo gaiekin lotuta daude, pieza batzuk libreagoak direlarik, eta beste batzuk ez.

Gustatu ala ez, ulertu ala ez, herritarren artean kuriositate, bederen, piztu du. Irailera bitarte bertan jarraituko dute eta, ondoren, guztietan bat aukeratu dute herriaren ikur bilaka dadin.



Iturzaetak, Jauregik eta Bildarratzek kendu zuten estalkia. N. LATABURU

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaindariak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udaleketan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak.

Anoeta, Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro... udaleketan administrari laguntzaileak behar dira.

943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitze: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak.

Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

Peoiak. Udaleketan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

TURISMOA ▶

Gipuzkoa barnealdea autobusez ezagutzeko aukera

Tolosa eta Segura herrien 750. urteurrena dela eta, bi eskualdeak lotuko dituen autobus turistiko bat jarriko dute martxan gaurtik aurrera



Tolosaldeko eta Segurako turismo eta ostalaritzako zenbait ordezkari, atzoko aurkezpenean, Donostian. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Gipuzkoa barnealdea ezagutzeko, eta zehazki, Tolosa eta Segura bisitatzeko, autobus turistiko bat izango da martxan gaurtik aurrera. Izan ere, bi herri hauek 750. urteurrena ospatzen ari dira aurten. Eta urtean zehar antolatutako dituzten ekintzen barruan, ekimen «berezi» hau aurkeztu dute, bi eskualdeak lotuko dituen ekintza turistikoa.

Atzo aurkeztu zuten ekimena Donostiako, Tolosako eta Segurako udaletako ordezkariak, eta Tolosaldea Tourrekoak. Bertan izan ziren ere proiektuan parte hartu duten ostalaritza eta merkatal zentroetako ordezkariak. Horien artean Tolosako Babarrunaren Kofra-

diakoak, Hernialde eta Kako jate-teeetakoak, Nikolas eta Julian erretegiak, eta Gorrotxategi gozotegiak.

Bihar, lehendabiziko aldiz, autobus turistikoa Gipuzkoa barnealdera sartuko da. Izan ere, normalean beti kostako ibilbidea burutzen du. Baina, oraingo honetan, Donostian dabilen jendeari, garraio publiko medio dela, Gipuzkoa barnealdea ezagutzeko aukera luzatuko diote. Donostiatik Tolosaldera iritsiko da, eta ondoren Segurara. Herri bakoitzean hirigunea bisitatu ahal izango da, ordu bateko bisita gidatuekin.

Proiektu honekin, alde batekin, bertakoei erraztasunak eman nahi dizkiete garraio aldetik. Eta, bestetik, Donostian

ZENBAIT DATU ▶
IRTEERA

Plaza Reina Regente z/g (Donostia).

EGUNAK

Uztaila. 22 eta 29.
Abuztua. 5, 12, 19 eta 26.
Irailak. 2 eta 9.

ORDUTEGIA

Goizez. 10:00etan Donostiatik abiatuko da, eta berriro bueltan 15:00etan ailegatuko da.
Arratsaldez. 16:00etan

dauden turistei barnealdea pixka bat ezagutzeko aukera eman nahi diete. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Tu-

Donostiatik abiatu, eta bueltan, berriro, 21:00etan ailegatuko da.

TARIFAK

Helduak. 45 euro.
Haurrak. 15 euro.
5 urtetik beherakoak. Doan.

BISITA GIDATUAK

Tolosa. Asteroko merkatua, Gorrotxategi museoa eta Alde Zaharra.
Segura. Ardiarra etxea, Alde Zaharra eta Asuntzian eliza.

rismo Sailak proiektua aurrera eramateko diru laguntza handia eman du, eta hau eskertu nahi izan dute Tolosaldea Ga-

ratzenekoei eta Segurako Udalekoek.

Aurkezpenean Jose Luis Ur-dangarin Tolosaldea Tourreko gerenteak agertu zuenez, «Tolosaldeko eskualdean, konkretuki, ostalaritza bultzatu nahi da, gastronomiari dagokionez, ordezkaritza oso garrantzitsua daukagula eta bultzada handia ematen ari direlako Gipuzkoa barnealdeari. Hala, egitasmo honekin irudi hori kanpoaldera ere zabaltu ahal izango da.

Egitaraua

Gaurtik hasita, hiru hilabetetan zehar, larunbatetan egingo ditu bisitak. Esan bezala, lehenengo gaurkoa izango da, hurrengoak hilaren 29koa. Eta ondorengo laurak abuztuan izango dira: 5ean, 12an, 19an eta 26an. Azken bisitak, berriz, irailaren 2an eta 9an egin ahal izango dira.

Autobusak egunean zehar bi bidaia egingo ditu: lehenengo 10:00etan abiatuko da Donostiatik. Hau, lehenengo Berastegira joango da, handik Tolosara, jarraian Segurara, eta, azkenik, 15:00etarako Donostiara itzuliko da. Hala, ibilbidean zenbait geldialdiak egingo dituzte, inguruetat gozatu ahal izateko. Eta gidatzaile batek ordu batez hirien inguruko xehe-tasunak emango ditu. Bestetik, arratsaldean, bidaia bat gehiago gauzatuko du garraio-bide turistikoak. Honek aurrekoaren ibilbide bera egingo du, baina arratsaldeko lauretan aterako da Donostiatik, eta 21:00etarako itzuliko da berriro.

Autobusak 55 eserleku izango ditu, eta txango hau egin nahi duenak txartel bat erosi beharko du. Hala, egun gutzira-kopu balioko dute; hala, bidaiariak goizeko autobusean etortzen badira ere, arratsaldekoan itzul daitezke. Honek bidaiariari egun horretan egin nahi duena antolatzeko aukera ematen dio. Gainera, ez da gutxiengo bidaiari kopuru bat beharko autobusa ateratzeko, beti bere orduan itertengo baita.

iragarki laburrak ▶
LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko. Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Zerbitzaria

behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuak deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.
Garbitzaileak. Bi neska eskaintzen

dira, orduka garbiketan aritzeko: etxebizitzak, tabernak, atariak, lokalak... Eskarmentu handia. Interesatuak deitu 657 71 96 17 zenbakira, edo bestela 943 68 3057 telefonora.

SALGAI

Txakurkumeak. Txakurkumeak salgai. Euskal artzai arrazakoak. Prezio oso onean. Oso politak. Interesa duenak dei dezala

636 17 16 24 zenbakira.

Autoa. Opel Astra 1.7 TDa salgai. 11 urtekoa. 1.800 euro. Interesatuak deitu 607 47 48 26 telefono zenbakira.

BESTELAKOAK

Txakurkumeak. Artzai txakurkumeak oparitzen ditut. Hilabete batekoak. Arrak eta emeak. Interesatuak deitu 948 50 44 81 zenbakira.

ARAMBURU
 Alokatzeko, Salbuen apartamentua 2 gelekina eta haize egokituarekin.
 Alokatzeko, Pisuak. Tolosan: Amaroz eta lurren.
 Alokatzeko, Garajeak. Araba etorbidean, Salgai (Tolosako lurren), Ofizialokoak, Salgai (Villabona).
 Lokala dendarako edo ofizinarako. Salgai (Tolosa), Pisu Trinkete plazan. 78 m2, garaje ibiko aukerarekin.
 Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, Laskorain eta Larramendin.
 Salgai (Garajeak).
 Tolosako Leidor azpian eta Ibarra, karabana sartzeko garajea.
 943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
 BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta
 Mahala baserria - 20491 LEABURU
 Tel.-Faxa: 943 673 499
 Tel. Mug.: 689 805 633

ADUNA ▶ PILOTA

Hasi da
III. Transernio
Txapelketa

Erredakzioa ▶ Atzo hasi zen III. Transernio Pilota Txapelketa, Adunako frontoian. Asteburu honetan lehen final-laurdenak jokatzeko ari dira. Atzo bost partida jokatu zituzten, alebin, infantil eta benjamin mailetan. Argazkian alebin mailako partidaren une bat ikusi daiteke. Atzokoz gain, bihar ere izango dira partidak, 11:30ean hasita. Datorren asteburuan beste final-laurdenak jokatu dira. Gogoratu finalak herriko festetan jokatu direla, abuztuaren 12an. I. GARCIA



ANOETA ▶

Koadrilen
arteko I Futbito
Txapelketa
gaur jokoan

ERREDAKZIOA

Koadrilen Egunean sortutako ideia gorpuztu eta gaur jokatuko dute I Futbito Txapelketa. Anoetako zazpi koadrila animatu dira lehia honetan. 10:00etan hasiko dira partidak eta egun osoan iraungo dute. 20:00etan izango da finala eta ondoren sari bana-keta. Frontoiaren aurreko futbito zelaian jokatu dituzte partidak.

VILLABONA ▶ JAIK

Zortzi egun festetan murgiltzeko

Haurrentzako egitaraua eta herriko elkarteek proposatutako ekitaldiak dira santioetako ardatzak

IMANOL GARCIA

Hastear daude Villabonako Santio Jaia. Etzi ekingo diote eta zortzi egunetan aukera ugari izango ditu adin guztieta-jendeak. Asier Vitoria Kultur zinegotzi eta Jai Batzordeko lehendakariak dioenez, bi dira santioetako ardatzak, Jai Batzordeak hala zehaztuta: «Alde batetik, haurrentzako ekitaldiak; beraiek dira egunero kalean dabilzanak, eta horregatik egunero ekitaldiren bat dute, bai goizez eta bai arratsaldez ere. Bestalde, herriko elkarten proposamenei lehenetsuna ematea da beste helburu nagusia».

Herriko elkarte guztiek hartzen dute parte jai egitarauan. Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzek kontzertua eskainiko dute. Behar-Zanak pilota partidak antolatuko ditu. Onddo Gazte Asanblada futbito txapelketa antolatzen ari da eta finala jaietan izango da. Oinkarik eta Oinargik dantzari txikien kalejira. Zumbeltzek herri krosa eta bertsoariak. Irrintzik txirindularitza proba. Loatzo Tiro Elkarteak plater tiraketa... Ahaztu gabe Euskal Jaiaren antolatketan parte hartu duten elkarte guztiak. «Euren ekitaldiak antolatzeaz gain, Jai Batzordean ere parte hartzen dute», gaineratzen du Vitorian.



Burdinezko zubiaren inguruan jokatu da batel txapelketa. I. GARCIA

Jubilatuek beren eguna izango dute larunbatean, hilak 29, eta Koadrilen Eguna ostiralean izango da, hilak 28. Horiek urterokoak dira, baina izango da berritasunik. Euskal Jaia da aipagarrienetakoa. Euskal dantzaren, erromeriaren inguruan antolatu dute eta tartean zikiro jatea egingo dute. Beste berritasun bat Oria ibaia gertatuko da. Ohitura berreskuratzuz, batel txapelketa egingo dute, Santio Saria izena jarri zaiona. Herri ingurutik hasi eta Adunako zubira bitarte egingo dute.

Ekitaldi bereziak ere ez dira faltako. Iaz berreskuratu zuten erroskilaren errausketa egingo dute aurten ere, Oinkarikoen eskutik eta Txatunga Benbek alaiturik. Herri kiroletan, bestalde, 52 plaza ezetz proba egingo dute herriko bi taldek, nor baino nor harriari tiraka. Egitarau oparoa, beraz, etzi eguerdiko txupinazoarekin hasiko dena.

EUSKAL JAIJA

BILLABONA 2006

ZIKIRO JATEA

Uztailak 29
Larunbata

Itsaskabra budina salsa arrosarekin

*Nafarroako zainzuriak ozpin-olio saltsa bereziarekin
Pikillo piperrak bakailaoz beteta pikillozko saltsarekin
ZIKIROA letxuga eta tipula entsaladarekin
Mokazko tarta jogurt-krema eta bainilazko izozkiarekin
Kafea eta Kopa*

Menua: 20 €

Txartelak salgai:

- Amasa okindegia-Kixubi okindegia-Larrea okindegia-
Labezain okindegia-Ogi Goxo okindegia-
Shepherds garagardotegia - Iturrigoxo jatetxea - Garmendia
Harategia - Arnasa - Iru-Aldeta - Maxola - Joe-Itzalpe

Oharra:

Txartelak erosteko azken eguna uztailearen 23a izango da.



Preso eta iheslarien aldeko juntokia
Villabonan jaietan
Berdura plazan

Uztailaren 24tik 31ra
20:00etatik 24:00etara

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Hainbat aukera dituzu HITZAren webgunean parte hartzeko. Eztabaidak eta inkestak daude, alde batetik. Albisteak idazteko ere aukera duzu, *Zeuk idatzi* atalean. Edo, bestela, argitaratutako albisteen inguruan iritzia eman dezakezu. Zeurea da hitza.

BIDEGOIAN ▶

Eztiola baserri kaltetuari laguntzeko jai berezia

Herri kirolak izango dira arratsaldean, bertsolarien saioa eta afariak gain

N. URBIZU

Duela bi hilabete erre zen Eztiola baserria Bidegoianen. Bi familia izan ziren kaltetuak: teilatua osotara erre egin zen. Hau ikusita, Bidegoiang Udalak laguntza emateko jaialdi berezi bat antolatu du hurrengo astebururako, hilaren 29an, hain zuzen ere.

Arratsaldean hasiko da ekitaldia Bidegoianen. 19:00etan herri kirolak izango dira: Unai Otaño eta Joseba Otaegi aizkolariak, Aimar Irigoien eta Urtzi Telleria harri-jasotzaileak, txingak, lokotx bilketa, ingudea eta korrika saioak izango dira.

Bertsolariak izango dira ondoren: Peñagarikano, Loizalete eta Arkaitz Zelaia. Eta 21:00etan pilotalekuan afaria izango da, herriko soinu-joleek eta bertsolariek alaituta.

Egun horretan aterako den diruarekin bi familiei laguntza emango zaie, teilatua eta behar diren guztiak konpondu ahal izateko.

Laguntzeko beste modua

Afarira joateko txartelak erosteko epeak bukatu egin dira. Baina bankuan ere badago dirua sartzeko aukera: 2101 0067 2001 2549 8733 (Kutxa). Informazio gehiago nahi izanez gero 943 68 10 03 telefonora dei daiteke.



Eztiola, suak harturik. N. URBIZU

FUTBOLA ▶

NEREA URBIZU

Realeko Bira 2006, futbolari buruzko Tourra, alegia, Tolosara irailaren etorriko da, bigarren egunean, zehazki. Asteartean, hilak 25, Tolosatik hurbil izango dira, Ordiziara baitoaz.

Bigarren urtez, *Realeko Bira 2006* futbolari buruzko Tourra martxan jarri zuten atzo, Mutrikin egin baitzuten saioa, eta ostegunean Zubietan ekimen berezi hori aurkeztu zuten. Honetan ume eta gazteei zuzendutako jolasak daude.

Ekimen honekin, Luis Ansoalde Realeko kontseilariaren hitzetan, klubak nahi duena «Reala Gipuzkoa osora hurbiltzea da, batez ere gazteengana». 6 eta 14 urte bitartekoentzat izango da bereziki; baina, dena dela, badute txikiagokoentzat lekutxo aproposen bat ere.

Ansoalde Coca-Colak —baberlerik nagusi— Iparraldeko eskualdean duen zuzendari Jose Inazio Leñenarekin batera agertu zen kazetarien aurrean herenegun, eta klubeko zuzendariak marka horri eta Kutxa, *Diario Vasco*, EITBko *Betizu* saioari eta zenbait udal eta instituzioei eman zizkien eskerrak.

Realekoak hainbat herrietan

Gipuzkoako 14 herri hartuko dute parte *Realeko Bira 2006* izeneko ekimenean uda honetan. Horiez gain, Hendaia ere hartuko du bira. Ia 1.000 metro koadro behar dituzte muntaia guztia jartzeko: txutometroa, baloiak botatzen dituen tresna, bideojokoak eta futbol zelaitxoak jartzeko erabilikoko dute, besteak beste.

Iaz, guztira 2.200 partaidek gozatu zuten ekimen honetan eta 12.000 bisitari hurbildu ziren.

Aurten, estrainekoz izango dira 9 herrietan, eta horietan, Bira berezi hau jaiekin batera izango da. Realeko helburuetako bat «urtero Gipuzkoako herri desberdinak bisitatzea da, gazte gehiagora hurbiltzeko asmoz».

‘Realeko Bira 2006’ Tolosan izango da irailaren 2an

Jolas eta ekitaldi bereziak izango dira gaztetxoentzat, futbol taldeko kluba haiei gehiago hurbiltzeko asmoz



Lehenengo urtean ere Tolosan izan zen Realeko Bira. JAIONE ASTIBIA

Hauek izango dira bisitatuko dituzten herriak: Bergara —bihar—, Ordizia, Arrasate, Aretxabaleta, Azpeitia; abuztu zehar Hendaia, Zumaia, Deba eta Donostia; eta irailan Elgoibar, Tolosa, Eibar, Hondarribia eta Zarautz.

Ordutegiak

Tour honetan parte hartu nahi dutenek doan egin dezakete, hurrengo ordutegi hauekin: 16:00etatik 20:00etara astelehenetik ostiralera, eta

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara asteburuetan.

Leñenak gaineratu zuen bezala, «nire ustez, iazkoarekin konparatuz hobetu behar ziren gauzak hobetu egin ditugu, eta espero dezagun gazteek goza-

teza». Izan ere, lehenengo urtean kobratu egin zuten, eta izena ematea beharrezko izaten zen.

Beraz, haur eta gazteek Reala aitzakia hartuz, udan zehar ere kirolaz gozatu ahal izango dute, eta eskualdean, zehazki, Tolosan, irailaren 2an.

hitza
Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn praktikak egin nahi?
Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua
Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz
Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

AHORRONET > GO
Apartekoa!!!
% 5 U.T.B. lehenengo urtean
Hileroko aurrezki txikietarako Aurrezki Kontua
• Gutxienezko diru-sarrera: 30€ hilean
• Gehienezko diru-sarrera: 300€ hilean
• Kuota hilerko sartzan da AhorroNet>Go-n eta bezeroak edozein unetan aldatu dezake kopurua.
• Kuotarik sartzan ez bada, ez da komisiorik edo penalizaziorik izango.
• Eskaintza 2006/07/31ra arte ongongo da idarrean.
• 18-30 urte bitarteko gazteentzat.
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA
Euskadiko Kutxak gazteen alde egin duen apustua

EUSKAL HERRIKO SEGA TXAPELKETA ▶



Ezker-eskuin eta goitik behera, Gabirondo, Goikoetxea, Aranalde eta Alkorta, aurtengo Gipuzkoako Segga Txapelketaren une batean. HITZA / M. SORBA

Finalerako txartelak lortzeko lehian, Gabirondo, Alkorta, Goikoetxea eta Aranalde

Mañarian lehiatuko dira bihar Euskal Herriko Segga Txapelketako finalerdikoetan gazteluarrak eta asteasuarra, Lapazagarekin eta Mariñelarenarekin batera

INIGO TERRADILLOS

Euskal Herriko Segga Txapelketako bi finalerdiak jokatu dira bihar, eta bertan lehiatuko direnen artean eskualdeko lau segalari aurkitzen dira: Joxe Gabirondo, Mikel Aranalde eta Andoni Goikoetxea gazteluarrak eta Mikel Alkorta asteasuarra. Hauekin batera, David Mariñelarena nafarra eta Jon Lapazaran bizkaitarra ariko dira finalerako txartela eskuratzeko asmotan.

Bi finalerdiak Mañarian jokatu dira. 11:30ean hasiko da lehendabizikoa, eta hura amaitzean, 12:30ak inguruan, bigarrena. Sei segalariak, beraz, bi multzotan banatuta ari-

ko dira nor baino nor, eta bakoitzetik lehenengo biek emango dute finalerako saltoa; lehenengo multzoan, hau da, lehen finalerdia jokatu dutenak Gabirondo, Goikoetxea eta Mariñelarena izango dira; bigarren finalerdian, Aranalde, Alkorta eta Lapazaga ariko dira.

Argi dago, beraz, Euskal Herriko Segga Txapelketako finalean eskualdekoen ordezkari izango dugula; izan ere, bi taldeetan bina ordezkari dago, eta lehenengo biek egingo dute aurrera. Gainera, eskualdeko hiru segalari jotzen dituzte faboritzat finalerako, Gabirondo, Goikoetxea eta Aranalde, hain zuzen ere.

Maila parekatua

Faborito garbiak egoteak, ordea, ez du esan nahi finalera igaroko direnen izenak erabakitzen daudenik, baina sei segalariak duten maila ikusita alde nabaria da. Maila altua dutenen artean, berriaz, parekotasuna da nagusi.

Gazteluko hiru segalariak, esaterako, finalean izatea espero da. Gipuzkoako Txapelketa irabazi duen Gabirondok «nahiko ondo» ikusten du bere burua, baina ez dagoela argi dio, «parekatuta baitaude finalerdiak». «Azken urteetan izan dituen emaitzak ikusita Goikoetxea izan beharko luke arerio zailena, baina Mariñelarena ere hor dago; Nafarroako Txapelketa irabazi berri du oso lan ona eginaz». Gazteluarrak berraren egoera ere kontuan hartu beharreko ezaugarria izan ohi dela dio, eta baita eguraldia ere; izan ere, «azken egunetan egin duen beroarekin lan egitera ohituta egotea ga-

rrantzitsua da». Lehen multzo honetako beste gazteluarrak, Goikoetxeak, maila ona erakutsi du kanporaketetan, eta biharkoan duen maila ematen badu aurrera egin beharko luke.

Bigarren multzoan ariko den Alkorta asteasurra lasai dago; «esperantza handirik gabe nago, nahiko garbi baitut Lapazaran eta Aranalderekin aurka ez dudala zereginik». Biharko finalerdian lan txukuna egitea izango da bere helburu nagusia. Bere lehen urtea du lehiaketa ofizialetan, eta lortu duenarekin «oso gustura» dago. Multzo honetan dagoen hiru gazteluarrak Euskal Herriko txapelketa izandakoa da, eta adituek diotenaren arabera dena behar bezala joanez gero, finalean beharko luke.

Hori, ordea, biharko saioan ikusi beharko da. Sei segalari ordu erdiko lana egingo dute, eta hori hobekien egiten duten multzo bakoitzeko biak igaroko dira finalera.

IBARRA ▶

Ura edangarria dela jakinarazi du Udalak

Ibarrako Udaletik jakinarazi dutenez, udal sareko ura berriro edangarria da, eta zuzenean erabili daiteke.

TOLOSA ▶

Bonberenea I. Futbol Txapelketa gaur egun osoan

Bonberenea I. Futbol Txapelketa antolatu dute gaur egun osoan zehar. Bonbereneako futbol zelaian jokatu dira partidak, eta hauek izango dira parte hartuko duten taldeak: Bonberenea, Oargi, Los Frikis, Zato Boys, Errekalde, Txoko txiki, Txoko txiki 2 eta Sanblaspeko. Aurtengogan, deialdi itxia egitea erabaki dute antolatzaileek, «ekintza berria baita eta tamaina hartzeko». Hala, iluntzerarte ariko dira taldeak jokoan eta 19:00ak aldera espero dute finala jokatzeko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423
▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berstegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Orea. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325


▶ Tolosa gasa: 675320

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

NATURA ▶



ibilbidea. 1. Artzainzulo. Ahotik bertara adokinezko bidea dago. **2. Jentileioko tutua.** 28 metro behera egiten dira 90 eskailera jaitsiz. **3. Laminosin.** Balio geologiko handi eta askoko gunea. **4. Herensugearen gotorlekua.** Katedrala adinako bolumena duen aretoa. HITZA

JAIONE ASTIBIA

Aralarren egun-pasa egiteko ikusgarritzko eguraldiak egiten ari da azken bolada honetan: Larraitz alde-ara igo eta hantzeko haize firfiraz gozatzuz, beheko zokoetan baino giro atseginagoa topatzea ez da zail, lur-azalean behinik behin; izan ere, lurra-aren barrena joateko gaitasunik ez du gizakiak, han fresko-xeago egonen delarik ere. Edo bai? Inoiz pentsatu ote du zer ote dagoen larre berde eta malkartsu horien azpikaldean?

Hara, bada, Aralar mendizerraren beste muturrean, Larraun bailaran, bada modua, lur barrena joatekoa. Izan ere, gaur urtebete hain justu, ireki zuten jendearentzat, Astitz Mendukilo izeneko lezea; Aralarren erraiak nolakoak diren ikusi eta gozatzeko.

Mendetan artzainek mendiko ikulu gisa erabili izan zuten leze hau —arkeologoez egindako indusketetan aurkitutako aztarnak k.a. 900-200 urtekoak direla frogatuta dago—, hortik datorkio izena lezeari berari eta bere lehen zatian dagoen sarrerako gelauneri ere, Artzainzulo esaten baitiote. Urretan, kobazuloko formazioetan egiten ari ziren txixixioak eta lapurretak eragozteko, paretak batez itxita egon ondoren, turismorako egokitzea erabaki zuten Plazaolako Patzuergoaren bultzadaz. Eta orain egunero, bertako gida baten laguntzarekin, bisitaldiak egiteko aukera eskuragarri dago.

Ormarretako simaren ondoren, (575 metroko desnibela du hark lurperantza), Aralar mendizerrako bigarren lezerik sakonena da, 90 metrorekin. Bisitalditan edozein moduz ez dago hondoraino joaterik. Lezearen zati bat bakarra baitago jendearentzat irekita.

Mendukiloko ahotik, Artzainzulora joanda, Jentileioko tutuan behera eginda Hartz Zuloa aillatzen da. Gelaune hone-tatik sartzan da Laminosinera eta Herensugearen Gotorlekura ere. Osinak, ur-putzuak, gourgs-ak geologian nagusi diren gelaunea da bata. Formazio geologikoetan oso aberatsa bai aniztasunean eta bai kopuruan ere; denetik dago: estalaktitak, estalagmitak, zutabe-

Mendukilo: Aralarren erraiak ageri

Astitzko kobazuloa, Larraitzeko azpikaldearen itxura ikusteko atari



Gerlariaren gotorlekua. Areto hau bisitatzerik ez dago orainoz. Hemendik dago Intxixen gotorlekurako pasabidea. HITZA



Nabardurak. Laminosinen harrizko zutabeak eta ura dira nagusi (ezkerrean); herensugearen burua ikusten? (eskuinean). HITZA

ak... eta gainera, denak, bertatik bertara ikusteko moduan. Bestearen ezaugarria, berriz, bere handitasuna da: 60 metro luze eta 20 metroko altuera du puntu batzuetan. Gelaune hau ez da bestea baino ikusgarritasun gutxiagokoa, baina nabarduretzat ohartzea zail egiten da bere zabaltasun horretan guztian. Hemen proiektorea eta soinu efektuak ere jarri berri dituzte.

Nabardurak, itxurak, koloreak, ur tanten soinuak, haize korronteak... Lezearen barrene-

dunek, karbono dioxidoaren kontzentrazioa, presio atmosferikoa, hezetasun erlatiboa eta temperatura neurtzeko. Parámetro horiek, harrera etxean dagoen bilketa-gunera heltzen dira, eta horiekin kobazuloaren klimatikan bisitariek duten eragina neurtzen dute. Horiek aztertuz kobara zenbat jende sar litekeen erabakitzen dute, ardura hori duten Alfonso Antxia Zientzia Espeleologikoen Elkarteak kideek.

Lurrazpiko laborategi hau Laminosinen jarritako beste tresna batzuekin osatuta dago: hor, harrobiaren beraren eta uraren temperatura neurtzeko sentsoreez gain, ur-tanten emaria neurtzeko plubiometroa ere jarrita dute, euri-uren iragazpen denbora eta kantitatea aztertu asmoz. Beraz, ikerketak ere badu bere garrantzia Mendukilon.

Ikerketa eta heziketa

Eta heziketak ere bai, harrera etxean ikus-entzunezko gela eta erakusketa gela izateaz gain, erabat bisitagarriak direnak, ikasturtean zehar ikasleentzat lurrazpiko ingurumen eskolak ematen baitituzte.

Bertako arduradunek aditza eman dutenez, lehendabiziko urte honetan 24.488 bisitari izan dira Mendukilo lezea ikusten eta 3.204 ikasle pasatu dira lurrazpiko eskolatik.

Mendukilon web orria ere badute, www.mendukilo.com, informazio bilduma txukunarekin, sarrerak erosteko aukerarekin eta guzti. 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara bisita daiteke koba, beti gidarekin, ordu erdira edo orduro, jaia edo asteguna den. Hurrengoa zu?

LEITZA ▶

Santa Krutzen erromeria eginen dute hilaren 25ean

Leitzako jubilatuko elkarteak antolatuta du; 13:30ean meza emanen dute ermitan



Ermita inguruak. J. ASTIBIA

ERREDAKZIOA

Hurrengo asteartean, hilak 25, Santa Krutzen erromeria antolatuta du Leitzako jubilatuko elkarteak.

«Herri osoarentzat», bertan parte hartzeko dei zabala egin du elkarteak. Izan ere, mendi kaskoan itzal atseginak egiten dituzten gaitasun ederrez inguratuta, Santa Krutz ermitaren inguruak egoki askoak dira egun-pasa egiteko eta, zer esanik ez, lagunarte alaietan bada.

Erromeria ermitan ematen duten 13:30eko mezarekin hasi eta ondoren bazkaria izanen dute. Adierazi dutenez, bazkaria norberak berea eraman behar du; eta edaria, postrea, kafea eta kopa elkarteak berak banatuko omen ditu, doan. Bazkalondan trikitilarietako erromeria eginen dute.

Jende ezindua ere erromerian parte hartzeko, antolatzaileek laguntza eskaera egin dute, mendiko ibilgailuak dituztenentzat. Horiek elkarrean egoitzan eman behar dute izena.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. Zikiri jatea egingo dute hilaren 28an, frontoian. Txartelak salgai Arandia jabetxean, 18 eurotan.
Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara.
Tolosa. Oargi mendi elkarteak La Muniara (Pirinioak) irteera antolatu du hilaren 29tik 31era. 21 urte azpikoek %20ko beherapena. Izen-ematea 637 83 03 80 telefono zenbakian.

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen lanak, Ostatuan ikusgai.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo tolosaren margolanak, Errota tabernan.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

MUSIKA

Tolosa. Mariachi Perla. Gauerdian hasita, Alde Zaharreko kaleetan. Ezpeleta Alde Zaharreko Ostalaritza Elkarteak antolatuta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
 10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina. Kolaboratzaileak, *Munduari leihoa*, agenda...

Goiko irrati
(107.0 FM)
 13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Papergintzaren museo xumea

TOLOSA ▶ Paper Eskolak Tolosana paper-fabrikaren zeuden antzinako bi makina eraberritu eta eraikinaren kanpoaldean jarri ditu ikusgai

LEIRE MONTES

Paper Eskolaren inguruko lorategietan ohi baino jende gehiago ikusten da egunotan. Ez, ez dute eguzkia hartzeko gune bezala egokitu. «Papergintzaren museo xume» gisa baizik. Izan ere, antzina erabiltzen ziren bi makina jarri dituzte ikusgai, eta horrek jendearen jakinmina piztu du.

«Gustatuko litzaiguke etorkizun hurbil batean papergintzaren museotxo bat jartzea bai eskola barruan eta baita eraikinaren kanpoaldean ere. Tolosa beti izan baita papergintzaren ikur. Hala, hauxe lehendabiziko pausoa besterik ez da», azaldu diote eskolakoek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI. Paper Eskolaren eta herriaren arteko «harremana estutu» nahi izan dute, halaber, ekimen honekin.

Calandra deitzen diote ikusgai dagoen makinetako bati. Bestea paper pasta fintzeko erabiltzen zuten. «Ehun urtetik gora dituzte makina hauek, eta antzina Tolosako Galgo paper-fabrikaren (orain Tolosana zena) erabiltzen zituzten. Tolosanan zeuden gordeta, eta handik ekarri ditugu».



Ez diru ikusgai, baina, antzina bezala, zaharberritu baitituzte. «Gorostidi arduratu da makinak garbitzeaz, margotzeaz... Berriak bezala geratu dira». Aurrez aurre hau ziurtatu nahi duenak, beraz, hemendik aurrera badu aukera.



AGURRAK ▶



Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

ZORIONAK
 Jon eta Meri.
 Bihar ondo pasa, lagunen partetik. Muxu bat.

Goian, paper pasta fintzeko makina; behean, *calandra* deiturikoa. L. M.